

Izen-ematea irekita Richard Gerver-en hitzaldirako

2017/05/08

Ireki dute izen-ematea Richard Gerver (Londres, 1969) hezkuntzan eta berrikuntzan aditu ingelesak emango duen hitzaldian parte hartzeko. Aurkezpena izango da **maitzaren 17an, Arrasateko Amaia antzokian, 18:30etan**. Gerver-ek ingelesez emango du hitzaldia, baina bat-bateko itzulpena egongo da euskarara eta gaztelerara. Aurikularrak denboraz hartu ahal izateko, 18:00etan irekiko dituzte Amaia Antzokiko ateak.

- **Izena emateko bete beharreko formularioa:** <https://goo.gl/forms/Q9Tn3e1aXHkYk212>
- **Hitzaldiaren titulua:** *Education: the simple thinking behind a complex future. (Hezkuntza: pentsamendu sinplea etorkizun konplexu baten aurrean).*

Beste batzuen artean, Gerver-ek hurrengo gaiak landuko ditu aurkezpenean:

- Zergatik ikasten dute umeez hain azkar? Nola berreskuratu ezaugarri hori?
- Hezkuntza goitik behera aldatu ala beroi eraginkorragoa egin?
- Nola birpentsatu eta eguneratu "inteligente" izatearen ideia?
- Zer jarrera, atributu eta konpetentzia garatu beharko dituzte umeez murgiltzeko mundu aldakor eta iragarezin batean?
- Erresilientzia garatzearen beharra.
- Balizko bikaintasuna bultzatuko duen kultura.

Richard Gerver mundu mailako erreferentea da hezkuntza eta berrikuntzan; gainera, egun dagoen hizlari ospetsu eta inspiratzailetariko bat da. Oso entzutetsu eta jarraituak izaten dira Gerver-en aurkezpen publikoak; ekitaldi horietan jorratzen ditu, beste batzuen artean, hurrengo gaiak: aldaketan kudeaketa, kultura aldaketa erakundeetan, sorkuntza eta berrikuntza.

The International Curriculum Foundation elkarteko sortzailea, bere proposamenak aplikatu izan dira hainbat hezkuntza erakundetan. Gainera, oso aholkulari ezaguna da. Hala, urteetan izan da Erresuma Batuko gobernuko eta UNESCOko hezkuntza arloko aholkularia. 2016an, *Simple Thinking and Change: Learn to Love It, Learn to Lead It* izeneko *best-seller*-a argitaratu zuen.

- Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 40. urteurreneko egitarau osoa.



Richard Gerver-en hitzaldia hasiko da 18:30etan.